



Martxoaren 9an egingo dugu Batzar Nagusia, Elizondon

Aurretik ez-ohiko batzara egingo dugu bertan, goizeko 10:00etan hasita, Estatutuak araudi berrira egokitzeko. Ondoren, 2012. urteari erreposoa egin eta 2013rako egitasmoa aurkeztuko dugu. Ondoren bazkaria izango da Galartza jatetxean.

Martxoa hilabete berezia izan ohi da Bertsozale Elkartearentzat. Urtea joan eta urtea etorri, herrialdez herrialde Batzar Nagusiak egin ondoren Euskal Herriko Batzar Nagusia iritsi ohi da. Aurtengo Batzar Nagusia martxoaren 9an izango da, larunbatez, goizeko 11:00tan Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Iñaki Murua Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Lehendakariak emango dio hasiera batzarrari. Ohi bezala, 2012. urteari erreposoa egingo diogu hasteko, urteko memoria eta balantze ekonomikoarekin.

Behin atzera begirakoa osatu ondoren, aurrera begiratzeko txanda izango da. Herrialde bakoitzak bere momentuko argazkiaren berri emango du lehendakari ahotik. Gipuzkoatik Saroi Jauregi etorriko da; Xiberoa, Lapurdi eta Baxe Nafarroatik Joana Itzaina; Bizkaitik Asier Ibaibarriaga; Arabatik Ekaitz Elorriaga eta Nafarroatik Alaitz Rekondo.

Herrialdez herrialdeko begirada osatu ondoren, sailez sail aurkeztuko dugu 2013ko egitasmoa. Koordinazioko egitasmoa Aritz Zerainek aurkeztuko du, Genero Taldekoa Ixiar Eizagirrek, Transmisiokoa Miren Irigoienek, Sustapenekoa Sustrai Colinak, Lankukoa Mikel Mariskalek, Ikerkuntzakoa Beñat Gaztelumendik, Xenpelar Dokumentazio Zentrokoa Nere Erkiagak eta Komunikaziokoa Estibalitz Esteibarrek. Bukatzeko, 2013ko aurrekontua aurkeztu eta bozkatuko da.

Aurretik ez-ohiko batzara

Bertsozale Elkartearen Estatutuak araudi berrira egokitu behar direla eta, ez-ohiko batzara egingo dugu aurretik. 10:00etan izango da lehenengo deialdia eta 10:15etan bigarrena. Bi batzarrak Iñaki Murua lehendakariak, Xabier Gaztelumendi idazkariak eta Aritz Zerain koordinatzaileak gidatuko dituzte. Bazkide guztiek zabalik izango dituzue ateak, proiektu osoaren argazki bateratua eduki ahal izateko.

Bazkaltzeko aukera ere bai

Batzarraren ondoren Elizondon bertan bazkaritan geratzeko aukera egongo da. Galartza jatetxean egingo da bazkaria, eguerdiko 14:30ak aldera. Martxoaren 9koa egun osorako plana izango da, gainera, ondoren, arratsaldeko 17:30ean

Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalaurrekoa jokatuko baita Elizondoko Lur dantzalekuan.

Batzar Nagusira joaterik ez daukanak apirileko Bertsozalean jasoko du bertan hitz egindakoaren berri.



ASIER OTAMENDI
2013-02-16, Izarra

Gaia: "Ispilu aurrean zaudela ilea erortzen hasi zaizula ohartu zara"

Doinua: : Zure eskaerak egia esan

Gogoratzen naiz aspaldi baten kriston melena nuena baina entradak azaldu dira adinaren ondorena adierazten dit aurrera doa bizitza hontako trena. Ilea gutxi geratu arren zertan izango dut pena? Zeren ta buru barrukoa da zinez axola duena.

"Begira hori ze kalbo dagon" esanaz dabil jentea. Hala ta guztiz izan daiteke pertsona elegantea burmuin barruan dagoena da benetan inportantea. Beti izan naiz tipo abila eta inteligentea: laster batean azalduko dut nere buru brillantea.



Iazko Batzar Nagusia.//XDZ

Mintzolak bertsolaritza izango du ardatz

Urtebete pasatxoko hausnarketa prozesuaren ondoren, Mintzola Fundazioaren ibilbidea bideratu dugu. Ahozko tradizioen behatzaile dinamiko izanik, gaurko gizarteak ahozkotasunean dituen beharrei erantzuteko sortu zen fundazioa.

Hemendik aurrera bertsolaritzaren ikertegia izango du erdigune. Horretarako, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Ikerkuntza Sailak bertsolaritzaren inguruko 100 eragile baino gehiagorekin osatutako ikerkuntza plana izango du ardatz. Horrez gain, ahozko kultur generoen elkargune ere izango da Mintzola, mugimendu bakoitzak pilotutako jakintza eta esperientzia trukatzu elkar aberasteko.

Hausnarketa beharra planteatu zenean, Mintzolan martxan jarritako proiektuei jarraipena emateko konpromisoa hartu genuen. Hala, behin Mintzola Ahozko Kultur Sorkuntzan zentratuta, martxan ziren ahozkotasunaren beste esparru batzuetako proiektuek jarraipena izango dute Soziolinguistika Klusterraren baitan.

Iñaki Murua. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Lehendakaria

“Orain da garaia Mintzolak ekarpen positiboak egiteko”

1.- Zein izango da Mintzolarek egitekoa?

Euskal Herriko Bertsozale Elkartek bere proiektua jarri du Mintzolarek esku, eta giza baliabideak eta Xenpelar Dokumentazio Zentroko ondarea ere baliatzeko gisan. Bertsolaritzaren Iker Institutua sortu nahi genuen eta Mintzolak bertan ditu beharrezko osagarriak; aurrerantzean unibertsitatea(ak) ikerketak gauzatzeko aukeretan bidelagun izango ditugu, bai tesietan eta baita bertsolaritzaren ekosisteman eragiteko azterketak egiteko ere. Orain da garaia Mintzolak ekarpen positiboak egiteko, ilusio sortzaileak eta interesa piztuko dituztenak. Guretik ekarpenak egiteko moduan gaude eta beste generoekin elkargunea ere eraiki behar dugu, besteek gure esperientzia eta ekarria baliatu dezaten eta denok elkarrekin eta elkarrengandik ikasiz, indartsuago izan gaituzten, bertsolaritzaren garapena euskararen eta kulturaren garapenari lotua baitago.


2.- Bertsozale Elkartea beste bost patronorekin da Mintzolakide. Zer daukagu eskaintzeko?

Guk gure proiektuaren muina daukagu eskaintzeko; transmisioa, sustapena eta ikerketa, hiru hankako oinarri sendoekin. Horrez gain, lanerako modu jakin bat ere badaukagu borondatezko lanari protagonismoa ematen diona bai egiturari eta baita filosofiarik ere. Honen bidez, herri mugimenduen eta herri erakundearen artean elkarlana garatu dezakegu bakoitzaren keriak eta tasunak jardunean uztartuz eta elkarrekin esperimentatuz elkar aberasteko. Mugimendu bizia da gurea, eta ikerlerro, ikerketa nahiz jorratzeko alor eta proiektu berriak sortuko ditugu etengabe. Mintzolari esker, ikasle, bertsolari nahiz bertsozale gazteek ikerketarako aukera izango dute. Bide honi jarraituz, pixkanaka-pixkanaka patronokideen arteko lotura sendotzeko eta emaitza borobiltzeko legami lana egingo dugu egungoak ilusioz janzteko –bada garaia- eta kide berriak erakartzeko ere bai, noski: diputazioak, unibertsitateak...

3.- Herri mugimendua eta erakunde publikoen arteko harremana ez da beti erraza izaten. Mintzolako elkarlan horrek zer ekar diezaiokie bertsolaritzari?

Hasteko eta behin gunean egotea, ondo posizionatuta. Bertsolaritzaren ekosistema osoari dagokion ikerketa burutzeko

aukera izango dugu aurrerantzean, eta baita kulturako beste generoekin ekarpenak egiteko ere. Guretzat indarberritu eta, etorkizunari begira, guretzat eragiteko aukera izango da. Erakunde publikoekin elkarlanean, oinak lurrian izanik, buruz buru jardun erreala gauzatzeko baldintzak eskura izango ditugu.



Iñaki Murua.//XDZ

Nafarroako Bertsolari Txapelketa

hilaren 23an amaituko da Iruñean

Otsailaren 2an jarri zen martxan Nafarroako Bertsolari Txapelketaren 41. edizioa, 31 parte-hartzaileekin. Orduz geroztik, martxa onean joan da txapelketa, eta orain azken txanpan sartu da.

Behin finalurrekoak amaituta, martxoaren 23an jokatu da Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala Iruñean, orain dela bi urte bezala. Hori bai, Labrit pilotalekuan beharrea, Anaitasuna kiroldegian izango da hitzordua.

Oholtzara finalurrekotatik sailkatuko diren zortzi bertsolariak igoko dira; horien artean jokatu da Nafarroako txapela, baita udazkenean izango den Bertsolari Txapelketa Nagusirako sailkatzea ere. Alaitz Rekondok eta Fernando Anbustegik aurkeztuko dute arratsaldeko 17:00etan hasiko den finala.

Finalerako sarrerak dagoeneko salgai daude www.bertsosarrerak.eu webgunean. Elkarteko bazkideok 12 eurotan dituzue sarrerak. Kontutan izan aforoa mugatua dela.

Ohi bezala, Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalak saio hutsa baino gehiago izan nahi du, bertsolaritza eta euskal kulturaren festa handia. Nahi duenak behin saioa amaituta Iruñeko Auzmendi sagardotegian antolatu dugun afarian parte

har dezake. Horretarako aukera ere www.bertsosarrerak.eu webgunean dago.

Txapelketaren gaineko informazio osoa eta gaurkotua www.nafarroakotxapelketa.com webgunean aurkituko duzue. Sare sozialen bitartez ere, txapelketaren informazioa jasotzeko aukera dago.



Orain dela bi urteko finala.//NBE

Arabian martxoaren 16an

askatuko da korapiloa

Urtarrilaren 25ean abiatu zen Arabako Bertsolari Txapelketa. 30 bertsolariarekin hasi zena 6 bertsolariarekin bukatuko da martxoaren 16an, Gasteizko Printzipal Antzokian jokatu den finalarekin. Denera 5 final laurden eta 3 finalurreko izan ditu txapelketak azkeneko geltokira iritsi aurretik. Udazkenean aurrekanporaketak egin ziren gainera.

Finala arratsaldeko 17:30ean hasiko da. Olatz Bayer ariko da aurkezle lanetan eta Maialen Kortabarria izango da gai-jartzailea. Aurtengo Arabako finalean, txapelaz gain, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan parte hartzeko txartelak ere jokoan izango dituzte bertsolariak.

Printzipal Antzokiak 700 lagunentzako edukiera dauka eta oraindik badago sarrerak erosteko aukerarik Gasteizko Amaia Zentroan edo www.bertsosarrerak.eu atarian. Horrez gain, egunean bertan takilan ere jarriko dira salgai. Sarrera arruntak 10 euroko prezioa izango du, baina bazkideek 7 eurotan eskuratu ahal izango dituzte eta 16 urtetik beherakoek 3 eurotan. Txapelketaren inguruko informazio gehiago aurki daiteke www.arababertsozale.org webgunean.

Arabako Txapelketak 2010ean bide berria hartu eta banakako eta taldekako txapelketak txandakatzeari ekin zion. 2011ko txapelketan Manex Agirre nagusitu zen. 1982an sortu ziren lehenengo bertso-eskolak Araban eta aitzindarien lana nabarmendu dute aurtengo txapelketan. Hortik dator "Lotu" leloa ere.



Manex Agirre txapeldunaren agurra.//Alberto Elosegi



Puntua jarrita

ANE LABAKA

LEHIATIK HARAGO

Nola bizi dudan lehia, Maialen? Ba gehientsuenak bezala, ahalik eta ondoen. Zure moduan eskolarteko txikien mailako oroitzen txiki baina politak gorde ditut; taldekako agurretako umorea eta saio ondoko afarien goxotasuna, batez ere.

Tamalez, txikien mailan behin bakarrik abestu eta nahi baino azkarrago egin behar izan nuen hurrengo mailarako jauzia; jauzi handia. Egia da, orduan, urteko saio bakartzat hartzen genuela eskolartekoa. Gerora, ordea, beste giro, plaza, sariketa... batzuk ezagutzeko zortea izan nuen. Lehiatik gozamenarako jauzia izan zen nolabait; jauzi handiagoa oraingoan. Gogoan dut horretan nenbela nola suertatu zitzaizkidan egun berean Gipuzkoako Eskolarteko finala eta ondoren Plazatik Gaztetxera sariketa Elgoibarko gaztetxean. Hortik atera kontuak eta egotzi izen bana bakoitzari; bati lehia eta besteari gozamina.

Txapelketa Nagusian, berriz, eskolartekoa bukatu ondorengo urtean hartu nuen parte lehen aldiz, orain bi urte. Orduan ere lehia ahaztu eta gozatzeko konbentzitu nahi izan nuen nire burua. Ez nuen lortu, ordea. Maiatzean hasitakoa ez zen berehalakoan bukatu, luze egin zitzaidan oso eta nire ingurukoei zer esanik ez! Ama haserre, aita histeriko, mutil-laguna pazientzia galduta, pisukideak harriruta, koadrilakoak bizirik ote nengoen galdezka... eta ni erotuta. Ertzeko modukoa da, ezta?

Behin bukatu zenean lasaituta, ezin nezake esan lehia ondo eramaten dakien pertsona bat naizenik, perfekzionista xamarra (edo -egia) izan naizelako beti, agian.

Horregatik saiatzen naiz ostiralero-ostiralero bertso eskolako ikasle ditudan gaztetxoei bertsolaritza lehiatik haratago irudikatu eta ikusarazten. Eta honekin lotuta, ni "ikasletzat" izan nauen Patxi Etxeberriari jarri nahi diot puntua. Zuretzat, beraz, Patxi, musu bat eta puntua (aspaldian azken hau jartzeko aukerarik izan ez dudanez...). Bertso-eskolakooi lehiaren inguruko aholku asko eman izan dizkiguzu... Baina zuretzako, zenbaterainoko lotura dute (edo izan behar lukete) bertsoak eta lehiak?

Koplak

Badator Bertso Korrika ere

Bertso-eskolek, AEKk eta Bertsozale Elkarteak 2013ko Korrikari begira antolatutako ekimena da. Euskara ikasleak bertsolaritzara hurbildu asmoz, 25 saio berezi egingo dira Gipuzkoan, Araban, Bizkaian, Nafarroan eta Lapurdin. Saioko azalpenak eta bertsoak euskara ikasleei egokituko zaizkie.

Poto-Finixa



Bertso-eskolentzat ikastaroak antolatzeko epea zabalik

Bertso-eskolei ikastaroen antolaketa erraztu asmoz, Euskal Herriko bertso-eskolen batzordeak 13 ikastaro jarriko ditu aukeran. Bertsozale Elkarteak finantziazioan ere lagunduko du. Eskaerak egiteko epea martxoaren 22an itxiko da. Informazioa eskatzeko edo eskaerak egiteko hona idatzi behar da: bertsoeskolak@gmail.com.



JASOTA BEZALA Bertso antologiaren bilduma



ESKURATZEKO: www.lanku.com (etxean jasoko duzu)